

COOPERACCIÓren Ikuspegia eta Xedearen Oinarriak (baloreak)

Justizia eta berdintasuna, ikuspegi feministatik

COOPERACCIÓk giza garapenaren alde dihardu lanean, gizarte justu baten irrikak bultzaturik; pertsona guztiek beren aukerak garatu ahal izan ditzaten lanean, horretarako beharrezkoak diren baldintzak bideratuz. Giza garapen sustengarri eta zuzenago baterako, baliabideen, norbanakoak dituen aukeren eta boterearen banaketa berdintsuago bat beharrezkoak dira. Munduko nazio eta herri ezberdinen artean, klase eta kolektibo ezberdinen artean, zaintza eta hornikuntza jardueren artean, emakume eta gizonen artean, banaketa berdintsuago bat.

Emakume eta gionezkoen arteko desberdintasunen eta botere erlazioen analisia ikuspegi feministatik egiten dugu. Feminismoan, feminismoetan, aurkitzen dugu genero berdintasuna eta justizia egokien aldarrikatzen dituzten proposamen politikoak, emakumeen askatasun eta autonomiaren bidea zabaltzen dituzten ekarpen teorikoak, berauen indartze prozesuak elikatzen dituzten oinarriak, emakumeak antolatu eta beraien eskubideen alde borrokatzera bultzatzen dituzten ideiak.

Emakumeekiko konpromisoa

Nazioarteko lankidetzan, elkartasun sena da gure lana bideratzen duen oinarria. Ez da elkartasun orokor edo abstraktu bat, baizik eta gizarte bakoitzeko pertsona zapaldu eta baztertuenekeko, emakumeekiko, konpromezu konkretua. Konpromezu honek, beraien eskakizunak eta borrokak elkarbanatzera garamatza, hala nola emakume eta gizonen arteko aukera berdintasunaren eta norbanakoen eskubideen errespetuaren aldeko borrokak.

Emakumeekiko konpromezua adierazten dugu, gizarte ezberdinetan cultura misoginoak eragindako biolentzia, ezabantaila eta injustiziak sufritzen dituztelako. Sistema ekonomiko patriarkalak ezberdintasunak eragiten dituzte, sexu arrazoiengatik, etnia, orientazio sexual, adin, egoera ekonomiko, sineskera, hezkuntza, eta abarregatik; emakumeekiko konpromezuarekin eta berauen ekinarekin, gizarte inklusibo, justu eta berdintsuago bat lortuko dugunaren itxaropenarekin.

Parte-hartze aktiboa

Jendearen parte-hartze aktiboarekin soilik lortuko dugu pertsona kritiko eta sormendunetan oinarritutako gizarte demokratiko bat eraikitzea. Bai Iparrean eta baita Hegoan ere, aniztasunean oinarritutako demokraziak eraikitzearen alde dihardugu, pertsonen esperientzia, gogo, aukera eta erabaki aniztetzan oinarrituriko demokraziak. Tutoretza erlijiosorik onartzen ez duen demokrazia laikoa, emakumeen eskubideak ukatzen dituzten hauek eremu publikoan interferentziak eragin ditzaten eragotziko duena. Beraien behar eta gogoen arabera antolatzen diren emakumeek indar eraldatzaile handia dutela uste dugu, beraien agendak garatuz eta gizarteko eta politikako aktore gisa azaldu. Elkartasun sare gisa ulertzen dugu lankidetzeta, Iparreko eta Hegoko talde feministen arteko elkarlana bultzatuz eta agenda amankomun eta interes adostuen inguruan elkarrekin lan eginez.

Koherentzia

Proposamen feministari kasu eginez, geure ekintzetan koherentzia mantentzearen garrantzia ulertzen dugu, lanean dihardugun arlo ezberdinetan koherenteak izatea, eta baita elkartearen beraren barne egituraren ere.

COOPERACCIÓ osatzen dugun pertsonen indartze prozesuei eta genero berdintasunari garrantzia berezia ematen diogu, eta gure lan eredua gure ideiekin bat etor dadin eraldaketa prozesuan dihardugu. Guzti honekin,

COOPERACCIÓ osatzen dugun emakume eta gizonen eremu pertsonal, familiar eta sozialak koherentzia berberaz betetzea desio dugu.

Baliabide publiko eta pribatuen kudeatzaileak garela kontziente izaki, eta proposatutako helburuak lortzeko baliabideok arduraz erabili behar ditugula jakitun izanik, gardentasunagatik, soiltasunagatik eta errespetuagatik bereizten da gure kudeaketa.